



URTEKO MEMORIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAREN ESPARRUAN ARAU-HAUSTEEN BERRI EMATEKO ETA INFORMATZAILEAK BABESTEKO BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMARENA. 2024. URTEA

1. SISTEMAREN SORTZEA

EUROPAKO PARLAMENTUAREN eta KONTSEILUAREN 2019ko urriaren 23ko (EB) 2019/1937 ZUZENTARUAU Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa da, eta Espainiako ordenamendu juridikora transponitu zen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen bidez (Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeari eta ustelkeriaren aurka borrokatzeari buruzko Legea; aurrerantzean, Legea). Zuzentarau horren indarrez, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu zen, zeina arautzen baita sistema hori sortu eta arautzeari buruzko ekainaren 13ko 89/2023 Dekretuaren bidez (aurrerantzean, Dekretua).

2023ko abenduaren 13an, Gobernu Kontseiluak sistemaren arduraduna izendatu zuen. Pertsona horrek autonomia hierarkiko eta funtzional osoa du, eta ezin du inolako jarraibiderik jaso, Legearen eta Dekretuaren arabera. Bi hilabeteko epea zuen ohiko eginkizunak betetzen hasteko, Dekretuari jarraikiz. Otsailaren amaieran, hain zuzen ere, instalatuta edo sortuta zeuden sistemaren zereginetarako oinarrizko aplikazioak: informazioa beharrezkoak diren lau kanalen bidez jasotzea (elektronikoa, posta arrunta, ahots-postontzia eta aurrez aurrekoa), erregistroa eta jaso izanaren agiria, barne-ikerketa, Fiskaltzari helaraztea; betiere, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna bermatzen dira.

Sistemaren ataria sortua zen (BIS deitzen hasi zitzaion, *Barneko Informazio Sistema* izenaren sigla), logoa eta marka ofizialki erregistratu ziren, eta jasotzen ziren informazioak ikertzen hasi ziren. Hemen duzue BIS sistemaren atarirako esteka.

Komunikatzeko eta elkarrengandik ikasteko bideak ireki ziren Kataluniako eta Valentziako iruzurraren aurkako bulegoekin, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde nagusietako batzuen barneko kanalekin (Bizkaiko Foru Aldundia, Gasteizko Udala...) eta, halaber, beren barne-kanalak abian jarri zituzten organismo edo sozietate batzuekin.

Ataria ezagutarazteko eta Sistemari igorritako informazio guztiak Sinteman bertan erregistratu daitezen lortzeko, informazio-kanpaina xume bat egin zen, une hartan zeuden sailtako zerbitzu-zuzendaritzen bitartez eta Jakina intranetean eta Gardena atarian oharrak jarritz.

Bitartean, Dekretua egiteko aurkeztu zen memoria ekonomikoaren arabera Sistemaren Bulegoak izan beharko lituzkeen lanpostuak sortu ziren, -dena dela, administrari informatikariaren lanpostuak teknikari informatikariarena ordezkatu zuen-, eta zerbitzu-eginkizunetan sartu ziren administrari informatikariaren eta administrari laguntzailearen lanpostuak beteko zituzten pertsonak, martxoaren bukaeran. Arduradunak uko egin zion idazkaria edo ibilgailua izateari. Aldi berean, langunea eraberritu eta hornitu zen eta apirilaren amaieran lekualdaketa egin zen hasierako bulegotik.



Halaber, kudeaketa- eta ikerketa-arduradunen lanpostuak izendapen askez betetzeko deialdiak egin ziren, baina hutsik geratu ziren, karrerako funtzionarioak ez aurkezteagatik edo uko egiteagatik. Memoria hau idazteko unean, izapideak egiten ari dira berriz ere, bi lanpostuok ahal bezain laster betetzeko.

Handik gutxira, informatzailea babesteko modulua ere sortu zen, Dekretuaren eskakizunei jarraikiz.

Bulegoko langileak prestakuntza jasotzen hasi ziren (datuak babesteari buruzko ikastaroak, artxiboa, barneko kanalei buruzko web-mintegiak, etab.). Arduraduna, bestalde, salaketen barne-kanalen inguruan argitaratzen ari ziren doktrina-literatura urria eskuratzen hasi zen; izan ere, kanal horiek berriak izanik, oraindik ere prestakuntza eta doktrina eskasa dago arlo horri loturik.

Era berean, apiriletik aurrera, bilerak egiten hasi ziren organismo eta erakunde batzuekin. Haietako zenbaitekiko lankidetzak nahitaezkoa da (Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia), Dekretuaren eta Legearen arabera; beste batzuekiko elkarlana, berriz, gomendatzekoa da, bai gainjartzeak ekiditeko eta bai konfidentzialtasuna babestuz eta bakoitzaren «salaketa-postontzien» esparruan lankidetzan aritzeko (Lehiaren Euskal Agintaritzak, Next Generation funtsen kudeatzaileak...) edo elkarrekin lan egiteko baterako prebentzio- eta hedapen-ekintzetan (Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea, KEB, etab.).

Geroago, hobetuz joan ziren informazioa ikertzeko, sailetakoko titularrekin komunikatzeko, espedienteak artxibatu eta ixteko eta abarretarako beharrezkoak ziren modulu informatikoak. Alertak, erabilera-eskuliburuak eta beste diseinatzen hasi ziren.

Informazio-ohar batzuk Jakinan eta beste intranet batzuetan jarri eta gero, Sistemaren sorrera iragartzeko eta 2/2023 Legearen gaiari erantzuteko sektore publiko autonomikoan organo bakarra dela nabarmentzeko, aurrez aurreko eta online informazio- eta hedapen-jardunaldi bat prestatzen hasi zen, azaroaren 29rako. Saioari loturik sortutako ondorengo materiala —powerpoint-eko aurkezpena eta ekitaldiaren grabazioa— zabaldu zen eskuratu nahi zutenen artean. Jarraian, informazio-saioaren edukirako esteka duzue (aurkezpen-esteka eta bideoaren gezia sakatu).

2. DATU ESTATISTIKOAK


2024. urtea amaituta, aintzat hartu behar da Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria: «Arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barne-sistemaren arduradunak memoria bat egingo du urtero, erakundearen jarduna bilduko duena. Memoria hori Eusko Jaurlaritzari bidaliko zaio urteko lehen lauhilekoan, eta haren gardentasun-atarian —Gardena— argitaratuko da».

Horregatik, xedapen horrekin bat etorriz, datu hauek jaso ditugu. Memoriaren edukia 2/2023 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian Administrazio-agintaritza independentearen urteko memoriarako ezarritakoaren antzekoa da, zeina bat baitator 2019/1937 Zuzentarauaren 27. artikuluan zehaztutakoarekin eta Europako Batzordera bidali beharrekoa den informazioarekin.


- Zenbat informazio jaso diren: 28, guztira
- Zenbat diren anonimoak (kopurua eta ehunekoa): 11, ia-ia % 40




- Zenbat informazio jaso diren: 17 informazio onartu dira, 10 ez dira onartu eta, urtea amaitzean, 1 «aurretiaz aztertzen» ari ziren, oraindik onartzeke.



- Onarturiko informazioetatik, 15 (% 88) barnean ikertu dira, eta 2 (% 12) Fiskaltzara bidali dira.




- Ekitaldiaren barruan, onartu diren informazio guztien barne-ikerketa amaitu ahal izan da. Ondorio-idazkia eman beharra egon denean, hiru hilabete baino gutxiagoan eman da, kasu batean izan ezik; kasu horretan, Sistemak epea beste hiru hilabetez luzatzeko duen ahalmena erabili zen, baina aste batzuk besterik ez zituen behar.




- **Onartutako** informazioen xede izan diren eremuei dagokienez, hauek dira azpimarratzekoak, Zuzentarauaren Eranskinak markatzen dituen artetik:
 - Kontratazio publikoa

- Osasun publikoa
 - Batasunaren interes finantzarioei eragiten dieten arau-haustek: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan (EBFT) 325. artikuluan aipatzen direnak eta Batasunak horri dagokionez hartzen dituen neurrietan xeheago zehazten direnak
 - Batasunak lehiaren eta Estatuko laguntzen arloan dituen arauen eremuko arau-haustek
 - Langileen osasuna eta segurtasuna eta lan-baldintzak babestearen eremuko arau-haustek.
- Eta Zuzenbide nazionalaren eremuko arau-haustek, eta Legeak bere aplikazio-eremuan jasotzen dituenak. Bereziki, erabakiak hartzeko arrazoiei buruzko administrazio-prozeduraren funtsezko izapideak ez egitea, hirugarrenei lege-betekizunik ez eskatzea eta publizitaterik ez egitea.




- Eta, arau-hausteen izaerari dagokionez, zehaztu ahal izan da barnean ikertutako 9 kasuetatik 5etan astunak zein oso astunak izan direla gai berari dagokionez; soilik oso astunak bi kasutan izan dira, eta astunak beste bitan.
- 4 kasutan lehenengo instantzian (Dekretuak markatzen dituen administrazio, organismo edo erakundeen titularrak) eta are bigarren instantzian (hierarkian goragokoa) eskatu zaien 3tan ez diote erantzun jasotako informazioa egiaztatzeko edo gezurtatzeko eskaerari -erantzutea nahitaezkoa izanda ere-.




2024 Sistemaren lehenengo urtea izan da, eta barne-kanalak oraindik oso berri eta ezezagunak dira (Legea arestian sartu baita indarrean); Kanpokoak antzeko egoeran daude, edo oraindik ernamuntzen ari dira, baina informatzailearen informazio- eta babes-sistemak, oro har, irregulartasunak ez gertatzea, etorkizunean ez-betetzeak saihesteko prebentzioan lan egitea, norberaren jarduerarekin eredu izatea eta osotasunaren bidea pitzadurarik gabe babestea bilatzen duten bitartekoak dira.

- Dekretuak gure errekerimenduei organismoen arduradunek eta titularrek erantzuteko ezartzen dituen epeak betetzeari dagokionez, egiaztatu da kasuen erdietan epez kanpo erantzun dela, kasu baten batean askoz beranduago. Horrek zaildu egin du Zuzentarauaren espiritua zaintzea, gaien muinera iritsi ahal izateari, informatzaileei erantzuna emateari eta ahalik eta lasterren anomaliak zuzentzeari dagokienez.



Epeen ondorioetarako, Dekretuak prebentzio-, zuzenketa- eta arazte-neurriak hartzeari buruzko txostenerako ezartzen duen hilabeteko epeari dagokionez, ez da beharrezkoa neurri horien azken emaitza ezagutzea. Sistemaren ondorioen idazkietan xeheki jasotzen dira informatzailearen eta pertsona errekeritutakoen ekarpenak, ikerketan gertatutakoa eta atera daitezkeen ondorioak, eta hortik abiatuta saileko titularrak edo berak agintzen duenak abian jarri behar dituen neurriak (diziplina- edo zehapen-espeditentak, egintzak deuseztatzea, kontratuak suntsiaraztea, prebentzio-neurri zehatzak eta abar) eta haien ondorioak hasitakotzat soilik adierazi behar dira, hasierako egoeran.

- Bestalde, ez da kasu bakar batean ere diziplina- edo zehapen-neurririk hartu, eta batean soilik hartu da neurri zuzentzaile gogorra, gainerakoetan prebentzio-neurriak baino ez baitira hartu.



Horregatik guztiagatik, memoria honi ahalik eta zabalkunderik handiena eman dakion nahi du Sistemak, eta arduradunei eta sailtako titularrei argi adierazi nahi diegu prest gaudela guztiona den zeregin hori gero eta hobeto egin dadin urtetik urtera.

- Amaitzeko, urtean zehar arau-hutsune batzuk hauteman dira eta araututako alderdiak Sistemak ikertutako gertakariak eta eskatutako pertsonak izapidetzeko eta erantzuteko zailtasun praktikoak dituztenak, eta horiek aldatzeko edo ordezteko jaso direnak, hala badagokio.